

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

EAJ-ETA: harreman gatazkatsua

A itortza: David Plari Urkulluri buruz galde-
tzerakoan, bagenekien, susmoa bagenuen
kontu horrek elkarrizketaren zati handitxo
bat hartuko zuela. Estatuaren jokabidea azal-
tzeko, esate baterako, nahikoa izango zituen
esaldi pare bat. Lakuakoarenak, ordea, argi-
pen gehiago beharko zuela susmatzen genuen, eta hala-
xe izan zen. Galdera bat baino gehiago behar izan zuen
gaiak, eta erantzunek ere bizpahiru esaldi baino zerbait
gehiago eman zuten, nahiz eta elkarrizketaren izenburu
nagusiak beste batzuk ziren; Luhuson zabaldutako bide-
ari, presoek abiarazitako eztabaidari eta ETak, Abian pro-
zesuak jarritako arrastotik, iragarritako hausnarketari lo-
tuak. Baina beti pizten du polemika ETaren eta jeltxideen
arteko harremanak. Gasteizko Gobernuak inork baino le-
hen erantzun zien Plaren hitzei, zakar antzera.

Gatazkatsua izan da betidanik EAJren eta ETaren arte-
ko harremana, erakunde armatuaren sorreratik bertatik;
finean, Euskal Herriaren taupada amatatzen ari zen jeltxi-
deen utzikariari osoko emendakina egin baitzion ETaren
sorrerak. Ondotik, elkar mokoka aritu dira maiz, eta hur-
bilketa saioek, Xibertan edo Lizarra-Garazin, ez dute
amaiera onik izan.

EZKER ABERTZALEA BURUMAKUR JARRI BEHAR DELA USTE IZATEA

Borroka armatua omen zen jeltxideentzat aurreko zikloa-
ren arazoa, baina, ETak arma bidezko ekinbidea behin
betiko utzi eta gero, EAJren jokabidea ez da samurtu. Go-
gorrago ere ekin dio zenbait kontutan, askotan bere desi-
ra bakarra ezker abertzaleak bere buruari uko egitea dela
azaltzeraino. 2005-2007 negoziazio prozesuan, argi be-
zain garbi adierazi zuen Josu Jon Imazek, orduko EBBko
presidentek: ez zuten inoiz onartuko Moncloatik ekarri-
tako Estatuaren bidea hartu izana akatsa izan zela ondo-
riotzatzea. Eta horretarako ezker abertzalea burumakur
jarri behar duela uste du Ibarretxeren gainbeheraren on-
dotik indartu zen zuzendaritzak.

Azken bospasei urteotan gatazkaren konponbideak
bestelako aldarte eta jokabide bat behar bazuen ere, es-
kuarki, eta salbuespenak salbuespen, ez da horrela izan.
Urrats bat aurrera eta mordoxka bat atzera izan da Urku-
lluren eredu. Diotenez, 2011ko udan jakin zuen Aieteko
Nazioarteko Konferentziak zer zekarren berarekin (ETA-
ren erabaki historikoa) eta horregatik hurbildu zen hain-
beste, kasik bere burua aitzindari aurkeztuz. Hilabete gu-
txira, ordea, Espainiako Kongresuan EAJk PPrekin eta
PSOErekin Estatu ituna sinatu zuen. Aieteko irizpideeta-
tik aldentzen azkar hasi zen.

EAJk Sorturekin harremanak hasi eta bide orri bat lan-
tzen hasteko aukera azaldu zen geroxeago. Halere, 2012ko
EAEko hauteskundeetan Urkullu nagusi izan zen, eta ez zuen
lerro horri segitzeko beharra ikusi.

Nazioarteko eragileen aurrean ere susmabera azaltzen
omen zen lehendakaria, beti mantra berarekin: ezin zaio

ezker abertzaleari jokoa egin. Harritu ere harritu zuen
bat baino gehiago, nonahi aitortzen baitzuen 2014ko ur-
tarrilean Auzitegi Nazionalaren debekuari erantzunez
eginiko manifestaziora ez atxikitze esan ziola EAJri.
Seguru asko, Rajoyk gustura entzungo zituen halakoak,
baina gatazkaren konponbidean laguntzeko hurbilduta-
ko zenbait aditu ahoa bete hortz utzi zituen.

URKULLU, ESPERO OMEN ZUEN AGIRI BATEN ATZEAN ZIMURTUTA

Konpromisoa hartu zuen, ordea, armak zenbatzeko eta
zigilatze prozesuaren hasieran, Nazioarteko Egiaztatze
Batzordearekin (NEB) harreman txukuna lortuta. Babes
ematera ere joan zen Auzitegi Nazionalak batzorde ho-
rretako ordezkariak deitu zituenean. Halere, prozesu ha-
ri hasiera eman zion lehen urratsak kontrako erreazio
handia izan zuen, eta Urkullu zimurtu egin zen. Aitzakia
bila hasi zen orduan, inondik agertu ez zen ETaren agiri
bat espero zela argudiatuz. Jonan Fernandezek aste ho-
netan bertan aipatu du «hiru lerroko» agiri «irmo» bat
espero zutela. Gaizki-ulertzea edo fede txarra, ez dago ja-
kiterik zer dagoen baieztapen horren atzean. 2014ko
otsailaren 21ean NEBk zigilatzea abiarazita zegoela ira-
gartzeko Bilbon agerraldia egin ondoren, ETak bi egune-
tara agiri bat argitaratuko zuela zabaldu zuen hainbatek
ahopeka. GARAk bagenekien orduan zurrumurru hori ez
zela zuzena. Teknikoki ezinezkoa zen. ETak 2004ko mar-
txoaren 11n Madrilen izandako atentatuan ardura uka-
tzeko egin zuen bezala egiten ez bazuen behintzat. Or-
duan, GARAko egoitza batera zuzenean joan, txirrria jo,
agiria postontzian utzi eta hanka egin zuten, sekulako
arriskuak hartuz. 2014ko otsaileko agiri horrena gezurra
edo interpretazio okerra zen, nahiz eta oraindik Fernan-
dez eusten dion. ETaren benetako agiria astebetara za-
baldu zen, NEBko azalpenen termino berdinetan. Bi adie-
razpenak termino berdinekin. Urkulluren eta
Fernandezen bertsioak ez du inongo logikarik.

Orduz geroztik, horien jokabideak 2011tik sortutako
gutxienekoak zapuztea ere izan du helburu. Oso esangu-
ratsua izan zen 2014ko abenduan, zigilatze prozesuaz
NEBk informazioa emateko agerraldia egin zuen egun
berean, Lakuak, lan hori gutxiesteaz gainera, bere arma-
gabetze proposamena publikoki aurkeztu izana, inorekin
aurretik hitz egin gabe. Gertaera zinez itsusiak izan ziren
hilabete horietan. Adibidez, Urkulluren ordezkari batek
bidaia egin zituen nazioarteko izen oneko pertsonen
Euskal Herrira, prozesuari babes ematera, egin behar zi-
tuzten bisitak galarazten saiatzeko.

Harremana, beraz, gatazkatsua izan da, David Plak
esan berri duenez. Halere, aurreko hori dena atzean utzi-
ta, konponbidean beste abiapuntu bat jartzeko aukera
ere aipatu du Plak astebukaerako elkarrizketan. Agian
Luhusok hori ere ahalbidetu dezake, gutxieneko boron-
datea badago. Ardura gizarte zibilak hartu du eta gidari-
tza partekatuen aukera zabal-zabalik dago. •